

AITA SAUVEUR LARDAPIDE (1812-1889) HAZPARNEKO MISIONESTAREN PAPERAK

Piarres CHARRITTON

Lapurdi ta Nafarroa Behereko muga-mugan, Hazparnetik Bastidareteko bide bazterretik hurbil, Aiherra-Isturitzeko bidekurutzea iragan-eta kilometro bat edo bien buruan, aurkitzen duzu, *Uhagonea*, edo *Uhaunea*, deitzen den etxe gotor bat. Gaurregun bizpahiru hektara pentze ta larre dauzka bakarrik ontasunak, bainan iragan mendean berekin zeuzkalarik, aldeko eihararekin, Etxezaharrea, Barne-Uhartea, Lakoa eta Urketa baserriak eta pakant-etxe bat edo beste, zerbait bazen Lardapide-tarren etxondoa. Etxe horretan sortu zen bada, 1812ko azaroaren 22an., *Sauveur Lardapide*, Pierre Lardapide eta Sabina Dokelar nausi etxekanderen semea¹.

1837 ko maiatzaren 20ean apeztu zen, Aihera Uhauneko semea, eta berehala, Bardozera izendatu zuten bikari, hain izan baitzuen lagun, Martin Hiribarren (1810-1866) euskal idazle ezaguna. Bardozetik Izpura-Garazi alderat joan zen erretor, eta gero handik Hazparne-Urkodaira itzuli, kargu berarekin.

1852 an, berrogoi urte zituela, *Hazparneko misionesteian* sartu zen Sauveur Lardapide, Urkudoi — frantsesez Urkurai-ko erretora. Han eramán zuten geroztik bizi guzia, 1889 ko otsailean, 76 urtetan, hil zen arte.

¹ Beste haurrik ere izan zuten Piarres eta Sabinak: *Dominique* premia, adibidez 1809 ko uztailaren 16 an jaioa, hogoi urtetan Ameriketara joan zitzaiena eta handik itzuli 1858 an, fortuna eginik eta ideiaz bezala izenez aldaturik —*Erasmus* hartua zuen izena —; hau zen etxondoaz jabetu, 1867 an J.B. Duvoisin-ekin harremanetan izan zen, Biblia-ren itzulpena zela-eta (Ikus *Correspondance du capitaine Duvoisin*, R.I.E.B., 1928, p. 465), Zahartzeari, auzorat etorri zitzaizkion Belokeko Beneditarrek «L'impie» «Fedegabea» deitzen omen zuten, Iratzederrek salatu daukunaren arabera, eta debaldetan «konbertitu» nahi izan zuten. Bere ordenuaren arabera, hil ondoan etxeko mahasti gainean ehortzi zuten.

Janpiarre Lardapide, 1816 an sortu zen semearen, eta Noelina Blanchard-en alaba, *Clémentine Lardapide* berriz, 1844 ean sortua, ezkondu zen Gilles komandantearekin; erosi zizkion, 1905 ean, Hazparne Eihartzea eta haren ontasun guziak, Emile Yrigoyen jaunari; berak gozatu zituen eta hiltzean, 1921 ean, bere kusi aita Caillava Bastidar Beneditarrek aholkatu, denak urrurik utzi, *Francis Jammes*, frantses poeta «katoliko» aipatuari (1868-1938).

Aiherra-Uhaunetik auzo hurbil badago baserri bat, *Borda*, deitzen dena. Etxe horretan jaio zen, 1833 ko martxoaren lean, Jean Haristoy laborari ilaginarren eta Graxiana Harispuru senar-emazten semea Piarres. *Piarres Haristoy* hau ere, Uhauneko seme Xalbat bezala, geroago apeztu zen, 1858 an, eta Euskal Herriko historialari bilakatu, zeren Zalgizen (1869), Irisarrin (1873) eta azkenik Ziburun (1887-1901) erretor zegoelarik, sekulako dokumentuak bildu zituen eta argitaratu, liburu altxor ederra uzten zigula, V.Dubarat kalonjeak idatzi zuen bezala, harekin batean sortu zuen «*Etudes Historiques et Religieuses du Diocèse de Bayonne*» izeneko aldizkarian (EHRB, 1901, XX, 145-180). Ez da, egia erran, hain ezaguna, Bordako apezak baino lehen, Uhauneko apezak egina zuen lana. Ez zuen-eta Lardapidek berak, bizi zeno, deus argitaratu, bainan bere denboran paper zahar biltzaile amorratuaren fama zuen, bere auzoko apez gazteak bezala, eta hil ondoan, esku-izkribu alde harrigarria utzi zuen Hazparneko misionesteian; paper horietarik zenbait nahi baigenituzke hemen aipatu, euskal letren historiaren aberasgarri.

Hazparneko misionesteia

Euskal literaturaren historia apur bat ezagutzen duenak badakike zer eragina izan duten egundainotik gure Herri ósoan misiolari edo misionestek erran nahi dugu, barne misionek emaiten zituzten jesuita, frantzizkotar, kaputxin beneditar edo apez soil, Baionan «aita misionestak» deitzen genituenek.

XVIII. mendean jadanik, badirudi *Jean Daguerre* Larresoroko seminarioaren sortzaile ta buruzagi-lehen Larresoroar apezak, 1732 an, Martin Behola Senperetarrerekin eta Gratién Diharce Hazpandarrarekin, hasi zituen misionek arrakasta izigarria izan zutela, Frantziako Iraultza etorri arteraino². Bizkitartean garrantzitsuago izan da oraino, gure ustez, Iparraldeko historian, 1821 ean, *Paul d'Astros Nerejaunak* (1772-1851), Baionako apezpiku zelarik, eraiki zuen «Bihotz Sakratuaren» misionesta taldea. Talde hori, zenbait hilabetez Baionan egon zen, gero apur bat Larresoron, berrideki berri zen seminarioaren aldean; eta azkenean 1824ean, Baionako apezpikuak berak erosi Landaburua eta Xuriategia bi auzoetan kokatu ziren, «*Abazparneko aita misionestak*», engoitik orotan erran ohi zen bezala.

Hazparneko misionesten historia, mende bat eta erdi iraun duena (1824-1976), egin-gei da oraino. Erran dezagun halere etxe horretan iragan diren buruzagi eta predikari guzieren artean zenbait izen badirela, zinez aipagarri direnak euskal idazle ta hizlarien sailean³. Adibidez oroitaraz ditzagun, *aita J.B. Garat-*

² C. Duvoisin, *Vie de M. Daguerre*, Bayonne, Lamaignère, 1863, p. 71 & 170.

³ Hona Hazparneko misionesten buruzagien zerrenda: 1. — 1822 — 1847, *J. Pierre Garat-Pikasarri* (1773-1847); 2. — 1847 - 1881, *J. Pierre Deyberalde* (1803 - 1881); 3. — 1881 - 1888, *Pierre Hiriart* (1809-1892); 4. — 1888 - 1898, *J. Pierre Arbelbide* (1841 - 1905) 5. — 1899 - 1917, *Martin Heguiagaray* (1832-1917); 6. — 1918 - 1943, *Pierre Lopez de la Vega* (1869 - 1961) 7. — 1943 — 1948, *Arnaud Dagarret* (1978-1949) 8. — 1948 - 1966, *Emile Garat* (1900 - 1978); 9. — 1966-1968, *Louis Iriartegaray* (1918-1988); 10. — 1968-1969, *Jean Hiriart - Urruty* (1927-1990); 11. — 1969 - 1976, *Joseph Camino* (1927).

Pikasarri (1773-1847) lehen buruzagi saildua, «Ceruco Gakhoa», Baionan Cluzeau baitan, 1825 ean argitaratu zuena; *aita Estebe Haramboure*; Ziburutarra (1799-1869) «Egun Ona» deritzanaren idazlea (Baionan Cluzeau baitan, 1829 an); geroago eta guretzat ezagunago dugun iragan mende ondarreko klasikoa, *aita Janpierre Arbelbide* (1841-1905) eta gutartetik itzali berri zaigun *Jean Hirriart-Urruty bera* (1927-1990). Idazlez bestalde, aipa ditzakegu ere hizlari famatu zenbait, hala nola iragan mendean, Garat eta Haramboure-n ondotik, *aita Ximun Gimon* (1793-1861) eta *aita Dominique Sarrote* (1800-1875) eta *aita Agustin Bastres* (1832-1904) eta XX. mende honen lehen partean *Jean Saint-Pierre*, euskaltzain apezpiku beharra (1884-1951), *aita Jean Larregain*, Hazpandarren «saindu mokorra» (1854-1926) eta *Laurent Apeste-guy*, elhe ederreko Donazahartarra (1887-1928).

Hazparneko misionesteiaren itzalean bada, ikastegi bat ideki baitzuten La Salle-ko anaiek, 1841 ean, arrakatsa izigarria izan zuena, *anai Innocentius* — Michel Elissambururen — (1826-1895) zuzendaritzapean behin, eta *anai Juvénal* — Arnaud Aguirre — (1850-1832) enarenean gero, Euskal Herri guziko mugetarik urrun Madrilan han harat, Andaluziaraino; Frantziako legeak «frera» guziak erresumatik kanpo bidali ondoan, 1911 an, apezpikutegiak ikastetxe hori berreskuratu behar izan zuen. Gora-behera askoren ondotik, indar handia hartu du azkenean diosesiko irakaskuntzak azken hogoi-ta hamar urte honetan eta, orain duela hamabost urte, Hazparneko misionesteia hetsi delarik, irakaskuntza horren hiru adarrak, hots adar orokorra, laborantzakoa, eta ofiziale eskola, jabetu dira, beren 7-8 ehun ikasle ta laborategi ta barnetegiekin, misionesteiko ontasunaz.

Bainan zer bilakatu da Hazparneko misionesten artxibategia, galda dezake historilariak, Aita Lardapidek hain zuzen utzi zituen esku-izkribuak, artxibategi horretan zitezkeen beste asko bezala?

Misionesten artxibategia

Badu ja berrogeitahamar urte hurbil, Baionako seminarioko liburutegian orduak eta orduak iragaiten nituelarik, hil berria zen Victor Dubarat historilariaren (1855-1939) seminariorat etorri liburuen artean aurkitu nuela liburu pakete arraro bat; «*Archives des Missionnaires de Haspaarren*» zeukan izena liburuak; 1898 an, Buenos Aires-en argitaratua zuen *aita Arbelbidek* eta 20 bat ale zeuzkan paketeak. Buruzagien baimenarekin ale bat hartu nuen neretzat eta beste bat eskaini nion, *Pierre Lopez de la Vega*, orduan Hazparneko misioneten buruzagi zen jaun kalonje zenari. Honek liburua irakurri-ta erran zidan, bai paper interesgarriak bazeudela, bainan besterik ere bazegoela, eta berak ere, zenbait bazeuzkalla. Hantik laster, hain zuzen, Hazparnerat etorri nintzelarik irakasle gazte, eta misionesteiko liburutegian zenbait ordu iragan ahal izan nituenean, konturatu nintzen paper zahar asko hor gelditzen zela, eta bereziki Lardapide izeneko misionest zahar bat ari izana zela XIX. mendean paperak bil eta bil, eta bere eskuz kopia ta kopia: Hala nola *Hazparne*, *Makaia*, *Lekorne*, *Gerezieta*, *Lekuine*, *Aibe-*

rra eta *Bastida* herrietako bataioen, ezkontzen, eta heriotzeen aktak oro, XVII. mendetik XIX. mende ondarreraino, kopiaturik zeuzkan bere eskuz Lardapidek.

Bainan Hazparneko misionestek lekuak hustu dituztelarik; 1976 an, norat eraman diren paper horiek oro, jakin nahi izan dugu, eta ikusi ahal izan, *Baionako apezpikutegian* daudela alde batetik, Arbelbiden 1898 liburu osagarri, Lopez de la Vegak zeuzkanak eta ere Hazparne inguruan bildu sakramenduen aktak, *Belokeko Beneditarren komentuan* daudelarik bestaldetik, J.B. Garat Pikasari misionesteiko lehen buruzagiaren biziak eta nortasunaz, Domingo Harriet haren zerbitzariak utzi zuen esku-izkribua (aita Iratzederrek *Otoizlari* aldizkarian argitaratu zuena, 82. zenbakitik 89. era) eta ere, Hazparneko misionestek iragan mendearen beren ibilaldietan zerabiltzaten kantika askoren kopiak.

Azken denbora hauetan ohartu gara bizkitartean, Hazparneko misioenesten artxibategiko hondarkinak badaudela oraino beste bi tokitan. *Pau-eko departamenduaren artxibategian* aurkitzen da alabainan, Victor Dubarat historilari handiaren paper-kutxa garrantzitsuena, eta hor daude ja aipatu dugun Arbelbiden liburuaren zenbait osagarri, jatorrizko gutun batzuk argitaratuak, eta argitaratugabeak ere bai, hala nola, Arbelbiden beraren eskutiz bat, adierazten diguna nola 32 aletan argitaratu zuen Buena Aires-en, «pro domo» bere liburua, eta zergaitik gero, uko egin zion Erroman hasia zuen auziari.

Baionako Euskal Erakustokian azkenekotz badago, *MS 168* zenbakiarekin sartua, aita Athor Heletako erretor, eta aintzinean Hazparneko misionest zenaren ondoriotasunetik, 40 orrialdeko esku-izkribu bat, aita Lardapide Hazparneko misionestaren izena, eta haren izkirio xehe ta ezagut-erraza, daramatzana. Esku-izkribu horretaz ditugu bi hitz erran nahi, aintzin-solas luzexka honen ondotik.

Lardapiden esku-izkribua MS 168

40 orrialdeko kahier horretan ez da kanturik baizik, bainan aitor dezagun kantu horietan badela orotarik. Batzu guziz ezagunak dira, eta izena bakarrik dakarte, edo bakarrik bertso bat edo bi: «Iruten ari nuzu», «Goazen etxerat», «Aitak eman daut dotea», «Xoriñoa kaiolan», «Xorittoa norat hoa?», «Intxauspeko alaba», «Atharratze jauregin», «Zazpi eihera baditut», «Mendekoste pestetan», adibidez. Badira ere oso osoan emanak direnak, nahiz ezagunak izan, hala nola bizpalau eliza kantu: «Aingeru batek Mariari», «Jondoni Bixintxo-re kantika bat» eta «Jondoni Estebe-ren beste bat» edo bertsogile jakin batzuen kantuak: *J.B. Camoussary*-ren «Gogoetak gazte baten heriotzeaz», *Ipharragirre*-ren «Gernikako arbola», *Dussaut* Bardoztarraren «Laboraria», *Haramboure* Ziburuko Xantrearen «Krinolinak» eta *Larralde Bordaxurik* gai berarekin, frantsesa ta euskara uztartuz, egin zituenak: «Avec gaîté nous allons botzak altxatzerat» eta azkenekotz *J.B. Elissamburu*-ren «Alegiazko eria», «Hogoigarren urtera», «Ikusten duzu goizean», «Apexa eta lorea». Horiek oro bazter eman-eta, gelditzen zaizkigu halere oraino hogei bat saio interesgarri, hemen aipatu nahi ditugunak. Eta lehenik hona bertso zahar purruxka zenbait:

a) Bertso zaharrak

Lardapiden esku-izkribuaren lehen bizpalau orrialdetan kausitzen ditugu bertso zenbait, idazleak berak dionaren arabera, emazte xahar baten oroimenari puskaka edekiak izan direnak. Aski osoak dira, iduriz lehen bi kantuak, *Hazparne Zalduko jaunarena* eta *Uretako semearena* honela datozenak:

URETAKO SEMEA

1

Goizean hotz da, eguerdiko bero da;
Uretatik lanhoa ateratzen da.
Martin Azantza uretara badoa.
Badoa, bainan amaren manuz ez doa.

2

Martin Azantza satin morez da beztitu,
Kalean gora gitarra soinu pasatu,
Erregina, leihoan gertatu.

3

Erreginak bere anderaurenari:
«Nungorik nungo zaldun eskutari hori?
— Ez da ez hori ez zaldun, ez eskutari,
Uretako semea da hori».

4

Arranda bat eman nezake,
Hura etzan den sabelari,
Bai eta benedika hari eman dion ugatza.

5

Isterbegiek laster zaien erregeri,
Erregeak berehala gutunarekin mandatari,
Kausi, dadila haren gortean laburki.

6

Botak jauntzi eta igan zaldiari:
«Jainkoak egun on dizula, erregeren gortea!
— Bai eta hiri ere, Martin Azantza, Uretako Semea».

7

«Martin Azantza, hi omen hut traidore!
— Ez nauzu ni traidore, ez ene leinian batere,
Traidoreak badira ere, zure leinian dire,
Eta su zerori heier ogi emaile».

8

«Bai Martin Azantza, hi omen hut traidore!
— Salbu ordena eta, gezurra diok Errege,
Ez koroa sal truk ere Uretako Semea».

9

«Gezurti Errege, ez nuk oroitu ere,
Martin Azantza, gudulariz gudulari,
Nik dauzkiat zazpi sarroin hor»⁴

10

«Sarroin horik ez dagoko gizonari.
Indatzu zazpi zaldun eskutari
Eta zerori heien gidari.»

«ZALDU»-ko Jaunarena⁵

1

Zalduko Jauna gerletan
Erregeren jendietan,
Dantzan ari zen,
Erregeren etxian,
Eta sala eder batian.

2

Erreginak erregeari:
Nungorik nungo
Zaldun eskutari hori?
— Anderia, Lapurdiko.
Bizirik ez da etxerako.

⁴ Lardapiden eskuizkribuan emana da ohar bat frantsesez *Sarroin* edo *Sorroin* hori Dogue edo horrelako otso-zakur zerbait dela.

⁵ *Zaldna* Hazparnen *Sault* izeneko jaunen jauregia zen eta bazeuden *Zaldu Zaharrea* eta *Zaldu Berria*, lehena Labirin, bigarrena Zelaian.

3

Goraintzi! Goraintzi!
Hazparnerat orori.
Ez orori berdinki,
Ene emazteari hobeki,
Eta pupuna andereari.

4

Jainkoak eman dezola senarra
Gizon tipi on handi
Amak bezain gorri
Ez duen bihozmina.

b) Iraultza denborakoak

Bestalde XVIII - XIX. mendean tartean hemen gaindi gertatu gertakari zenbaiten lekuko bildu ditu Lardapidek bertso porroxka batzu, hala nola 1784 ean Hazparneko emazteak jazarri baitziren «*grabela*»-ren aurka, emazte horiek eman zioten bertsolariari suieta:

«Hazparneko jendiak dire alarmatu,
«Orok boz batez diote: «Grabela» badugu»⁶
«Satanek bere tropak harat bildu ditu
«Emazten buru gaiztoz ordenak eman 'tu.»
«Emazte Mari-Martin kolore perdia!
«Uste duna haizu dela gizonen joitia?
«Desohoratzen dun hola bai mundu guzia,
«Eta partikulazki gizonen arraza.»

Laster etorri zen gero Iraultza, lekuka bederen *apezen kontra* jendea asaldatu zuena:

«Laborariak jaten badu xardin begi gorria,
«Arto minkor, pitar elkor osasun galgarria,
«Apeztarik adituren du: «Debox hordi galdua!»
«Berak nola bizi diren eman gabe goardia.»
«Apezen moltsan sartua da beharraren dirua,
«Kantuz eta errepikan alegeraki bildua;
«Heien» «*tourne-broche*»-a⁷ ez da behinere gelditua;
«Badu urzo, epher, kaila, pularda gizendua.»

⁶ Hazparneko emazteen jazartzea, 1784 ean, *Gabelle* deitu zergak zuen sortu. Hori baitzen delako «*Grabela*» eta geroztik, zentzu aldaketa izpi bati esker, Hazparnen «*Grabela*» deitzen diote bilkura edo feira edo festa batean jautzen den haro ta nahaspila izigarri edozeini: «Jende haiek *grabela* izigarria atxiki zuten beren bilkuran».

⁷ «*Tourne-broche*» da frantsesez, spazter aintzinean itzulikaten den *gerrena*.

Iraultzak ordea zekarren ere gerla, hogei urte iraun behar zuena, eta hortik bi kantu hauek bederen: lehena, Franciscque Michel-ek, «*Le Pays Basque*» liburuan bildu zuena, 1857 an, 420. orrialdean:

«Lapurdi, Basa-Nafarre, Zuberoa gureki,
«Gerlarat joan behar gira guziak elgarreki,
«Madrialeko plazaraino guziak lerro-lerro,
«Kantatzen dugularik: «Han bego frantsesa libro!»

Bigarrena ere Lardapidek hasten duena, eta Francisque Michel-ek 422. orrialdean emaiten diguna, hortxe dugu:

«Napoleon Frantzian enperadorea,
«Europan egin duzu haintz balentia,
«Harispe generala euskaldun garbia,
«Haren plazera baita gerlárat joatia.»

Ordu haietakoak ziren oraino, liburu berean aurkitzen den Perkainen kantutik hartuak diren bi bertso hauek (398. orr.):

«Azantzako semia nik ez dut mendratzen,
«Bere parerik ez du pilota botatzen,
«Bainan Perkain hori ez zuen lotsaren
«Plaza, guziarentzat bera aski baitzen.»

«Azantzako jaun Pedro, abila zirade,
«Mainuiak hartu 'tutzu, bai bainan debalde;
«Antzara xixterrak ere janikan ere
«Leheneko pilotaz beti prest girade.»

Bainan gure ustez Iraultza denboretako kantu arraroena eta beste nehon aurkitu ez duguna, ez aita Zavala-ren liburu berezian ere⁸ haxe dugu, *Uztaritzeko ehule batek*, 10 bertsoan eho zuena:

1

«Martxoaren 16an aurten zen Erramu,
«Uztaritzko herriak solasak egin 'tu,
«Uste gabe berriak ditugu aditu:
«Presunerak tropaka gazteluan sartu.

⁸ A. Zavala, *Frantziako Iraultza eta Konbentzioko gerra bertsoan*, Auspoa 202, Etor, 1989.

2

«Jaun gobernadoreak ordreak eman'tu
«Erraporten arauka listan hartu ditu:
«Jaun hura behar dugu orok obeditu,
«Bihotz umil batekin hura zerbitzatu.

3

«Jaunak ari zarete zuen fantesian.
«Zer egiten duzue guzien buruan?
«Hor inozent maltso bat da presundegian,
«Ohoien kapitainak plazeren erdian.

4

«Presoak baditugu lau-bortz herritarik,
«Uztariztik, Jatsutik bai eta Haltsutik,
«Milafrangatik ere, zenbat? ez dakit nik;
«Larresorotik hiru» guti-Baratzetik.»⁹

5

«Guti Barazko» semeak bereiz 'tut aipatu;
«Ez dut segur neronek gauza hau pentsatu:
«Larresoarrek dute goraki erraten,
«Herria hauk dutela zinki ohoratzen.

6

«Nimiño Archer hori zangoak arinik,
«Erramuz egin baitu irabazi onik,
«Soldadoak berekin ongi harmaturik,
«Atez ate ibilirik, bihotza tendrerik.

7

«Jatsu hortan badute gizon bat herrian,
«Ardura dabilana Baiona hirian,
«Autoritatez mintzo presunen gainian,
«Zazpi-mila gezur'tu kondatzen aldian.

8

«Heraitzen omen du zenbait adiskide,
«Laborari fidel bat kontseilu hartzaile
«Bata Heraitzetik, bertzea Jatsutik,
«Bota fite itsarorat, zakuan sarturik.

⁹ Larresoroko *Guti-Baratze* izen arraro hori, ongi pentsatu-ta, frantsesezko *Petit Séminaire*-en itzulpen arraroa besterik ez daiteke!

«Zapatainak eder du eskuan eztena:
 «Jaun hori deitzen dute Jatsuko «copin»-a.
 «Norat ote du gogo eraman arima?
 «Mundutik partitzeko du hurbil adina.

«Arrantza bat ederra amua eskuan,
 «Kontsultatuko dira itsaso erdian:
 «Sofriarazi dute guri gazteluan,
 «Hek pagaturen dute han bere aldian.»

c) Bertso berriak

Askoz ere gehiago dauzka bada Lardapiden eskuizkribuak, bertso zaharrak baino - erran nahi dugu XVIII-XIX. mende tarteko bertsoak baino - XIX. mendeko bertso berri, edo guretzat ezezagunak. Guhaurk baditugu bi saio argitaratuak, Labayru-ko adiskidek, Bilbon arigitaratzen duten «Gauontza» sortaren 5. zenbakian, 1990 ean: Ikus «*XIX. Mendeko Olerki-Bertsogintza*»-ren 30. orrialdean, Larrade-Bordaxuri bertsolari ezagunaren bederatzi koplak, *Hazparneko lehen misionearen gainean (1819)* eta 45.ean, olerkari ezezagun baten hamabost koplak, *Hazparneko D'Iharce de Bidassouet idazlearen alde (1826)*.

Berrikitan irakurri dut *Examen critique du Manuel de la Langue Basque*, par Lor. Uhersigarria, Bayonne Cluzeau, Décembre 1826, *Anuario del Seminario de Filología Vasca*, Julio de Urquijo, aldizkaria, XXII-1 delakoak, 1988an berrargitaratua, eta geroztik uste dut, liburuki horretan Lor. Uhersigarriak, hau da Fleury Lécuse-k, bere eskuliburuaren alde idatzi zuen txostena irakurri-ta, hor aipu den D'Iharce de Bidassouet-en «diatribe manuscrite» hura besterik ez dela, Lardapide-n paperetan aurkitu dudan esku-izkribua, «Arroltzemendiko ermitak» berak bere alde ontua. Hona delako bertso saila:

Apologie de l'abbé (d'Iharce) de Bidassouet (1826)

Réponse à la satire (sic) sanglante ou libeile diffamatoire inséré à la fin du *Manuel de la Langue Basque* imprimé à Toulouse en 1826.

Zuberotar musde Pette. Arrastoian hazia.
 Liberala zara ote? Erradazu egia!
 Apezen duzu egiten, ausarki, zuk irria,
 Bardintsu da suge baten, zure mihi luzia.

2

Huntz buruka, bai erhoa, apeza duzu deitzen,
Ah! zaren bezalakoa, ageri da zer zaren:
Xori buru, arin, hutsa, ikustate gabea,
Zuk errespetatzen ontsa erreligionea!

3

Espainiako bazterretan ibili omen zare,
Zuberotarrak askotan harat joaiten dirade,
Zer ofizio zinuen jakin ote daiteke?
Ez ahal zinen bederen xerri-xikitatzaile!

4

Sakelatik ateratuz xirula kuriosa,
Hartaz ongi perekatuz ezpain eta kokotsa,
Itzulika erabiliz bi alderdietara,
Soinu bat samina guziz, helduz xerrietara.

5

Zer hoben egin derauku Bidassouet apezak?
Eskualdunak ohoratu, ahalaz, haren obrak,
Ez bada zure gostuko, egizu hala dena:
Bada zerbait erraiteko, iguzu ez duena!

6

Ez da bere burutarik mintzo liburu hartan,
Autor aipatuetarik hartuak aurkitzen han.
Ez da ebangelioa hutsik batere gabe,
Frantsesen historia, eta ez gurea ere.

7

Erregeren laudamena ekartzen du berekin:
Parisetik jin batena, zertako du harekin?
Hark, ikasi ez duena, nahi du erakatsi;
Oraino aprendiz dena, jarri zauku nagusi.

8

Parisen ez Tolosan ezin ikas eskuara,
Hura dakitenen baltsan biziz, hartzen da hura:
Eskualdun herrietan etorritz egoitera,
Nola frantses hirietan frantximan ikastera.

9

Paristartto baten gatik, zonbat duzun espantu!
Egundaino holakorik ez da hemen agertu!
Damurik bertzeren obrak frantsesez tu beretu;
Eskualdunek egin lanak iduri hark obratu!

10

Larramendi jakintsunak, eskuara du moldatu;
Pariseko harodunak, frantsesera bihurtu.
Huna haren balentria: bertzerenaz jabetu;
Holetan gizon handia, ohoina¹⁰ da gertatu.

11

Arras kontent bere obraz, harena delakoan,
Trufatzen da bertzerenaz, hau ikusi ondoan,
Eskergabetasun beltzaz, bere nausiak ditu,
Egin duen liburuan, burlaturik pagatu.

12

Hiztegi bat erdi hutsa, ahal nola bildua,
Betetzeko bere boltsa, baldin bada saldua,
Horra horra Paristarra, diru eta ohore,
Bai zu. Arrastoitarra, zeren zareten zale.

13

Benoat Arias Montan, doktor net argituak,
Eman hiru erdaretan Eskritura sailduak,
Hebreoz, grekaz, latinez, batera bildurikan,
Paristarra hetaz berez ari zauku trafikari.

14

Zonbana saltzen ote du, sei hogoi liberetan?
Parisen zuen izatu xoilki hamabostetan
Montanek eginikako obra famatu hura
Bildua bai dena oro liburu xoil batetara.

15

Ez du tratuan deus galtzen gure Paristar jaunak,
Irabazteko ez ezen hartzen ditu moienak;
Asko liburu xumetan ezarriz gauza bera,
Urre gehiago zarpan baitarama sartzera.
Akabo: Konda: Harrapa.

Musde Bidassouet apezaren aldekoa. Paristar eta
Zuberotar baten kontra, 1826an egina.

¹⁰ plagiaire.

Baina eskuizkribuko beste kopla horiek guziak nahi bagenitu argitaratu, liburu-ki berezi baten gaia bagenuke. Erranen dugu beraz bakarrik badaudela hor alde batetik hiru bertso andana Ameriketarat joaitez dihardutenak: lehenak 24 kopla dauzka eta honela hasten da: «*Itsaso zabala dut begi aintzinean bigarrenak 8 kopla, honela hasten baitira: «Joan gogo naiz segurki ni Ameriketarat»; hirugarrenak 4 kopla, honela baitiote: «Itsaso haize beltzak hedoiak'tu hedatzen».* Bestalde aurkitzen ditugu misionesten lanak haien lagun bat edo beste aipu dituzten bertsoak: «*Hazparneko herriak badu apostolu»* (9 kopla), «*Murde Etxeberri, Uztaritzeko seroren aholkulari jaun apez ezagunari»*¹¹ (6 kopla); 1853 an *Barkoxen eman misionez* 11 bertso; 1863 an *Senperen eman misionez* 11 bertso et azkenik *Lardapide-ri berari* lagun zenbaitek eman 12 bertso hauek:

1

«Nahi dautzuet kondatu
«Zer den goiz huntan gertatu:
«Misionestak ernatu
«Behar direla partitu.

2

«Guziak etxerat bildu,
«Nahi baitziren askaldu,
«Bainan konpainiak bet-betan du
«Hiru heietarik bat galdu.

3

«Agurrik ere ein gabe,
«Norat joan da Lardapide?
«Joan ote da bidez bide?
«Lapeire-k kuxian galde.

4

«Orduantxe gizontto bat
«Heltzen da etxe aterat
«Oihuka: «Berri handi bat,
Jaunak, dakarket zuentzat!

¹¹ *Etcheberry* apez hori, Mixel Garikoitz sailduaren kusilehena eta Uztaritzeko seroren aholkularia euskal idazle oparoa dugu, argitaratu baitzuen, besteak beste, 1848 tik 1890 arte *Escualdun laborarien adiskidea ... edo almanaca*, Baionan, Lamaignère baitan. Ikus bestalde J. Vinson-en bibliografia.

5

«Oi mirakuilu handia!
«Nork ongi konda berria?
«Hain da espantagarria!
«Harritua naiz guzia!

6

«Beraz, Jaunak, nik zerutan
«Ikusi dut doi-doietan
«Karrosa eder bat sutan,
«Lau zaldik joaiten airetan.

7

«Karrosa haren barnean
«Jarria karren artean,
«Nor zela, zuen ustean?
«Lardapide erdi-erdian.

8

«Cotiar*t*-i eta Lapeire-i,¹²
«Habil! Errotek bieri,
«Nola, Elias iduri,
«Airetan naukan ikusi.

9

«Bainan ene izpiritua.
«H.etan dela pausatua,
«Kapa hau berme hartua
«Izananen duk gelditua.

10

«Eta horra non erori
«Aitzinerat zautan niri
«Hemen dudan kapa hori
«Eta dautzut ekarri.

¹² *Aita Casimir Cotiart* eta aita *Martin Lapeyre*, aita *Martin Lapeyre*, aita Lardapide-n misio-
nest lagunak ziren eta bertso hauek 1873. urte ingurukoak daitezke, urte horretan baitzen aita
Martin Lapeyre joan, aita Bastres eta aita Dupérou bezala «La - Pierre -qui-vire»-eko komenturat
gero hantik itzultzeko Belokerat Beneditar komentu berriaren eraikitzerat.

11

«Lapeire ene maitea,
«Huna ene sinestea,
«Zurea dela zortea
«Kapa horren ezartzea.

12

«Pierre-qui vire»-n profeta¹¹
«Segurki nahi bazira,
«Kapa hori gain behera
«Bota zazu bizkarrera.»

Badauzka azkenekotz. Lardapiden kantutegiak beste zenbait koplak, Hazparneko misionestegitik haratxago —nahiz ez Ameriketaraino — eramaiten gaituztenak, hala nola *Théodore d'Arthez*, Donapauleko eliza berriaren ongiegileari, eskaini 7 bertsoak; Donapauleko ikastetxearen sortzaile ta buruzagi izana zen *Arnaud Ségalas*-en (1806-1851) heriotzeaz ontu 6 bertsoak; *Murde Canderats*, Amenduzeko ihizlariaren gidariaren 1869 ko urzo ihiziaz egin 10 bertsoak, *Abbadia*-ren euskal lore jokoetan emaiten den makilaz antolatu 6 bertsoak; joko horietarat hurbiltzen ez diren *Nafarroa Beherako koblarien* mendekatzeko 13 koplak; bai eta ere aski zorrotzago, Bidaxune, Akhamarre, ta Salieseko *Gaskoin herrieta-ko emazte edaleen* kontra, 1856 an itzulikatu 8 koplak; Istudiant-ondo uzkipitxer, etxez-etxe ederki asetzen dabiltzan *bi «bandit»-en kontrako* 6 koplak; Lapurditik Baxenabarrerat jinik, Andere serorarekin eskandala emaiten duen *jaun erretoraren kontrako* 16 koplak gordinak eta azkenekotz, J. M. Satrustegik Bordel Luzaideko bertsolariari eskaini zion liburuan (Auspoa, 45-46,1965) bildu zituen bertsoekin konparatzeko ongi datozenak, *1864 eko irailaren 8an Arnegin gertatu zen heriotze krudelaz* ontu 12 koplak hauek:

1

«Nahigabe hainitz da munduan gertatzen,
«Zerua eta lurra batzuek harritzen,
«Gauza lazgarrienak ditugu ikusten
«Herioaren orde gizonek egiten.

2

«Guzier nahi nuke gauza bat kondatu
«Euskal herri batean zer zaukun gertatu
«Ifernua ahal da hortaz okupatu
«Gizon malurus batzu harek 'tu itsutu.

3

«Aita batek, duela bizpahiru urte,
«Gizon bati eman du alaba emazte,
«Gizona zen zaharra, emaztea gazte,
«Elkarrakilan ziren bizi orai arte.

4

«Zaharra zen ibili Montevideo-etan,
«Handik naski ekarri dirua sakelan,
«Alaba emaitian Aita zen karkulan,
«Ezkontza ez da behar bortxatu sekulan.

5

«Egun batez erran du Aitak alabari,
«Harmaz edo pozoinaz hil zan gizon hori!»
«Alabak arrapostu: «Aita, ez dut nahi,
«Nahi ere bai, bainan adreza bertzeri!».

6

«Heriotza zuen konplitu nahia:
«Hatzaman ditu nonbait gizon gazte bia,
«Eman ere ausarki dirutan saria,
«Suhiari kentzeko nolazpait bizia.

7

«Orai bortz hilabete haste zen buruila,
«Badoazi bordarat Zaharraren bila,
«Haren hiltzeko dute aintzurra makila,
«Mendian uzten dute, harma kolpez hila.

8

«Justizia da laster maluraz ohartu,
«Gaiztaginak dituzte fite harrapatu
«Jandarmek berehala 'tuzte mañotatu,
«Bai eta gisa hortan Pabe-rat gidatu.

9

«Asisetan omen da argitu afera
«Gaiztaginentzat orok bazuten kolera:
«Aitari eman dute betikotz galera:
«Bi hiltzalek baitzuten behar gauza bera.

10

«Izana gatik ere adinez zaharra,
«Preso behar du eman denbora hondarra,
«Guzien arabera bazuen beharra,
«Jakiteko zer diren Ona eta Tzarra.

11

«Alaba da gelditu pena doloretan,
«Esposa hila eta Aita galeretan,
«Zer lanak egin 'tuen bere denboretan,
«Etsaminatu behar orai burdinetan.

Gauza lazgarri hori gertatu Arnegin,
 «Nehork ere ez baitu entzuna atsegin,
 «Zaharrak, etsenplu hau ez ahantzi behin:
 «Adinez hain makurra ezkontza ez egin!».

Artikulu hau bururatzean galde hau heldu zait gogora: Nor zen edo hobeki erraiteko nor ziren, XIX. mendeko bertso horien egileak? Ez da erraz jakitea. Baina azken ohar bat eginen dugu, menturaz bide bat idek diezagukena: Bertso horietarik hainitzek Amukuzeko eskualdearekin badute zerikusirik, Hazparneko misionestekin bezala, eta hain zuzen, Hazparneko misionestetan luzaz ibili da, iragan mendean, Amikuztar apez bat, *aita A. Guïresse*, 1799 an, Behaskanen sortua¹³ A. Hiriart, Uztaritzeko irakasle Baionesak, liburu bat argitaratzen duelarik, 1840an Baionan, Cluzeau baitan, bere ikasle euskara eta frantsesa irakasteko, «*Introductuion à la langue française et à la langue basque*», deritzana, liburuaren aintzin solasean aipu dituelarik orduko euskaltzale ezagunenak: Darrigol, Segalas, Haramboure, Harriet eta beste, izendatzen du ere «*Guïresse apez poeta*». Ez ote dizkio bada aita Lardapideak aita Guïresse-ri bertso horietarik zenbait entzun eta bildu bere eskuizkribuan? Menturaz zenbait bederen bai.

Bizkitartean beste apez bertsolaririk ere izan da Amikuze aldean XIX. mendean. Adibidez, Bonaparte printzea Donapaulen iragaiten delarik Donapaulen, 1868 ko martxoren 30 ean, Pierre Jaureguiberry jaun erretorak eskaintzen dio, berak 14 poemaz osaturikako olerki sorta pollita. Hain zuzen hor daude Lardapiden paperetan izenik gabe aurkitzen ditugun hiru olerki bederen: Hauexek dira, *Makila*, *Pethan* eta *Pobrearen kantua* deitzen direnak¹⁴.

Iduri luke beraz azkenekotz aita Lardapidek ongi ezagutu zituen Arnaud Guïresse eta Pierre Jaureguiberry¹⁵ bi apezlagunen izenekin osatzen dela, haren eskuizkribuetan, hirugarren baten bitartez, aita Athor-en arartez, irakurtzen ditugun bertsolarien zerrenda.

¹³ *Aita Arnaud Guïresse*, 1799 an sortua Behaskanen, 1824 ean apeztu zen ja Hazparneko misionesteian aita Garat-Pikasarriren laguntzaile sartua zelarik. 1834 ean Uztaritzeko seroren aholkulari izendatu zuten eta 1843 an Azkaineko erretor, baina J. Elissalde-Zerbitzari Azkaindar idazleak zionez (J. Elissalde, *Azkaine gure sorterrria*, Elkar, 1985, 17.orr.) ez zuen oroitzapen onik utzi Azkainen. Handik 1852 an joan behar izan zuen, eta 1855 ko irailaren 16 an hil zen.

¹⁴ Ikus N. Alzola Gerediaga-ren artikulua «Jaureguiberry eta Bidegarray abadeek Bonaparte Luis-Luziano-ri omenaldia», *Gure herria*, 1968 eko agorrila, 82-92. orr.

¹⁵ Pierre Jaureguiberry, Izpuran, 1808 an sortua, apeztu zen 1836 an, Maulen egon bikario, erretor Donaistin (1844), Larzabalen (1855) eta azkenik Donapaulen (1859-1872).